

INTSUMISIOA: 1990EKO HAMARKADAKO GAZTEEN BORROKA

•Zuek bai jakin!: Araceli Garcia •Elkarrizketa: Josune Goenaga

•Izerdi patsetan: Jon Izagirre •Boteprontoan: Jon Azpiazu

Herri Aldizkaria Otamotz

2009ko

martxo

145. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!



Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

IKER



FAGOR

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Intsumisioa: 1990eko hamarkadako gazteen borroka
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Intsumisioen mugimendua gogoratzen al duzu?
Zer iritzi duzu armadez?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Gotzon Aranburu
- 18 Zuek bai jakin!**
Araceli Garcia
- 22 Elkarrizketa**
Josune Goenaga
- 25 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**
Jon Izagirre: dohain apartak dituen pilotua
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Jon Azpiazu



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Intsumisioa: 1990eko hamarkadako gazteen borroka

Intsumisioak 20 urte bete ditu. Mugimendu hau oso garrantzitsua izan zen, asko izan baitziren soldadutzari eta ordezeko zerbitzu sozialari uko egin eta armaden aurka agertu ziren gazteak. Batzuek kartzelara joan behar izan zuten, baina gizartearen gehiengoaren elkartasuna lortu zuten eta estatuak derrigorrezko soldadutza kendu behar izan zuen. Urretxu eta Zumarragan ere intsumiso asko izan ziren. Josemi Alvarez, Julen Garralda eta Iñaki Lizarralde euretako hiru izan ziren eta garai hura nola gogoratzen duten kontatu dute.





UZTAK antolatutako bi ekitaldi: hitzaldia eta mural margoketa.

Nola piztu zen intsumisioaren mugimendua herrian?

Josemi Alvarez (J.A.): Hasieran, herrian oso intsumitu gutxi zegoen eta ez zegoen mugimendu honen ezagutza handirik. Denbora aurrera joan ahala jendea errazago animatu zen. Hasierako garaian kartzelara joan gintezkeela oso presente genuen. Apur bat antolatu ginenean UZTA (Urretxu eta Zumarragako Talde Antimilitarista) sortu eta elkartearentzat lokala bilatu genuen.

Nolatan erabaki zenuten intsumiso egitea?

Iñaki (I.L.): Ikasten ari ginen eta luzapenak ematen zizkiguten. Luzapenen bukaera gerturatu heinean, urduriago jartzen ginen. Gainera, mugimenduaren nondik norakoak ikusteko aukera izan genuen. Hasieran gordinagoa izan zen. Herriko lehen intsumisoak kartzelara joan ziren. Ni, ordea, ez.

J.A.: Lehen intsumisoetako askok zerbitzu sozialetan lan egin zuten boluntario, ordezkoko zerbitzu soziala sortu aurretik, eta gero ez zieten soldadutza egiteko deitu.

Josemi Alvarez:

“Jendea beldurtzea ez zutela lortu ikusi zutenean, zigorrak bigundu zituzten”

Madriren oihartzun handiko kasu bat izan zen. Mutil batek bere auzoaren alde lan itzela egiten zuen, baina soldadutzari uko egiteagatik epaitu egin zuten. Epaietara auzo guztia joan zen. Lehen objektoreak oso gizaseme kontzientziatuak ziren eta

bakean utzi zituzten, mugimendua isilpean edukitzeko. Baina ez zuten nahi zutena lortu eta orduan kartzela zigorrak ezartzen hasi ziren. Jendea beldurtzea ez zutela lortu ikusi zutenean, zigorrak bigundu zituzten Nire garaian fiskalak bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra eskatzen zuten, baina epaileak indultatu edo urtebetezko zigorra ezartzen zuten. Aurrekaririk ez bagenuen, ezerezean geratzen zen.

I.L.: Hasieran gutxi ziren eta jendea kartzelaratzera erraza zen, baina gero jendeak intsumiso egiteari beldurra galdu zion eta orduan hasi ginen borroka irabazten. Intsumiso kopurua biderkatu egin zen eta egun bakarrean 15 epaiketa egon zitezkeen. Nire epaietarako minutu bakarra iraun zuen. Ezin zen horrenbeste lagun kartzelan sartu. Azkenean alderdi politiko gehienek ere bat egin zuten eta armada profesionala sortu zen.

Nolako izan zen zuen esperientzia?

Julen Garraldaren epaiketara joan ziren lagunak.



I.L.: Ni intsumiso egin nintzen garaian, konpromiso hori hartzea garai batean baino samurragoa zen. Une politikak bizi izan genituen: lagun asko elkartu ginen eta egiten genuen horretan erabat sinesten genuen. Kartzelara joateko aukera egon bazegoen, baina urrun samar ikusten genuen.

J.A.: Mugimendua poliki hasi zen, baina gero sekulako gorakada izan zuen.

Herriko lehenengoetakoa izan zinen.

J.A.: Herriko zazpigarrena izan nintzen. Kartzela urrun ikusten nuen, baina ezinezona sentitzen nuen. Dena den, hasieratik babesa sentitu genuen. KEM/MOC (Kontzientzia Eragozpen Mugimendua) delakoaren bilera batera Gobernu Militarreko informazio bulegoko tipoa etorri zen. Jende askok intsumiso egiteko

zer egin behar zen galdetzen ziola eta fitxak tramitatzera heldu zela esan zuen. Denetik heltzen omen zitzaion. Tipo

Julen Garralda:

“Epe motzeko helburua soldadutzarekin bukatzea zen, baina UZTAK harago ere lan egin zuen”

batek, adibidez, arkatzez idatzitako nota bat besterik ez ziola utzi aipatu zuen: “intsumisoa naiz” besterik ez zuen jartzen. Ez izenik, ez non tokatzen zitzaion sol-

dadutza egitea... Pentsa gauzak nolakoak izan ziren: inon ez zen Gobernu Militarrean bezainbeste informazio intsumisioari buruz.

Etxean ere gaiak kezka sortuko zuen.

J.A.: Amak behin eskua sorbaldan jarri zidan eta nire erabakia ulertzen zuela esan zidan.

I.L.: Gurasoak kartzelara eramango ninduten beldur ziren, baina oso ondo informatuta zeuden eta bazekiten ordurako hori ez zela gertatzen.

Josemi, zu kartzelan izan zinen.

J.A.: Bost egun bakarrik egon nintzen, baina askotan kontatu dut bertan bizitakoaren berri eta lagunek bost urte eman nituela dirudiela diote. Esperientzia sinergaitza izan zen.

I.L.: Bila etorri ziren. Ostiral gaua zen,

gaztetxe zaharraren azpialdean zeuden eta bat batean desagertu egin zinen.

J.A.: Kartzelan intsumisoak ukiezinak ginen. Funtzionarioen kezka guri ezer ez gertatzea zen. Ez zitzairen batere komeni, adibidez, gutakoren bat jipoitua izatea. Izan ere, horrek gizartean alarma sortuko zuen. Niri kartzelako zuzendariak nola egon nahi nuen galdetu zidan. Besteak beste, eguna funtzionarioen atsedean gelan emateko aukera eskaini zidan. Ezetz esan nion, gainontzeko presoekin egon nahi nuela. Arazorik banuen, berari esateko erantzun zidan.

Herriko intsumituak UZTA taldea sortu zenuten.

Julen Garralda (J.G.): Lehen bilerak Urretxuko udaletxean izan ziren.

I.L.: Gero Zumarragako Udalak lokal bat utzi zigun, Itarte Etxean. Bertan 20-25 lagun elkartzen ginen, larunbat goizetan. Zenbat intsumitu ginen, ordea, ez dakit. Izan ere, azkenerako ia gazte guztiek bide hori hartu zuten. Batzuk UZTAn antimilitarismoaren alde lan egiteko prest zeuden, baina beste batzuk ez ziren behin ere azaldu.

Zer ekitaldi antolatzen zenituzten?

I.L.: Aste Antimilitarista antolatu genuen, besteak beste.

J.A.: Jaietan txosna jartzen genuen eta behin poemak zituzten kondoiak banatu genituela oroitzen dut.

I.L.: Herriko bat epaitu behar zuten bakoitzean, manifestazioa egiten genuen eta epaiketara joaten ginen. Gutako batzuk beste talde antimilitarista batzuetako kideak ziren, kamisetak atera genituen, kontzertuak antolatu genituen, *Bukumatula* izeneko aldizkaria argitaratu genuen, gaiari buruzko mahaingurua



Txalaparta jotzen, herritar baten epaiketa hasi aurretik.

antolatu genuen...

J.G.: Funtzionamendua aipatzekoa da, talde irekia baikinen. Asanblada bidez funtzionatzen genuen eta ez genuen kideen zerrendarik. Garrantzitsuena gauzak egitea zen.

J.A.: Ardura gehien hartzen zuena, lan gehien egiten zuena... era naturalean liderra bilakatzen zen.

J.G.: Oiangura asteburu pasa joan ginekoea gogoratzen al duzue? Gai ezberdinei buruz, taldearen funtzionamenduari buruz... hitz egin genuen. Asteburu oso oparoa izan zen. Gauza interesgarriak aipatu ziren.

Emakumezkoak mobilizatu al ziren?

J.G.: Manifestazioetara joaten ziren.

J.A.: UZTAn ez zegoen emakumerik. Taldea eurentzat zabalik zegoen, baina halako ekimen batean parte hartzeak lotsa ematea ulergarria da.

I.L.: Bileretan ideiak lantzen ziren eta hori

guztion esku dago.

J.G.: Ateak mundu guztiarentzat zabalik zeuden, ez zegoen intsumisoa izan beharrik. Batzuek ez zuten soldadutzarekin inongo arazorik, baina kideak ziren. Epe motzeko helburua soldadutzarekin bukatzea zen, baina UZTAK harago ere lan egiten zuen.

Aldizkariari *Bukumatula* izena jarri zenioten. Nondik atera zenuten izen xeble hori?

J.A.: Ozeaniako tribu batek gizon zuria heldu aurretik zuen sistema asko gustatzen zitzaigun eta *Bukumatula* nerabeek sexu harremanetan hasteko erabiltzen zuten txabolaren izena zen. Ikusten den bezala, gure kezka bakarria ez zen soldadutza.

J.G.: Taldearen barnean Santamaria abizeneko batek pisu handia izan zuen. Orain kanpoan bizi da. Gu baino dezente zaharragoa da eta gai ezberdinak jorrara-

Epaiketen aurkako protesta jendetsua Areizaga kalean.



zi zituen. Haurtzarolari buruzko hitzaldiren bat ere antolatu genuen... Antimilitarismoa ez da armaden aurka egitea bakarrik, baita gizartean dauden jarre-
ra militaristak identifikatzea eta eurekin bukatzea ere. Gizartea desmilitarizatu nahi genuen.

J.A.: Santamariak taldearen jardunari zentzu handiagoa eman zion.

J.G.: Berak jarri zion *Bukumatula* izena aldizkariari.

J.A.: Trantsizioa ezagutu zuen, komuna batean bizi izan zen... Bera izan zen soldadutzara ez joatea oso ondo zegoela, baina borroka zabalagoa izan behar zela aipatu zuena.

J.G.: Nire ustez gure lan egiteko modua gustatu zitzaion eta horregatik hurbildu zen gurera. Egitura bertikaletatik zetorren eta gure lan egiteko modua horizontala zen. Politikariekin egin genuen mahaingurura etorri zen, guztiak larrutu zituen eta ordutik gurekin gelditu zen.

Noiz desegin zen UZTA taldea?

I.L.: Beherakada soldadutza desagertu aurretik hasi zen. Gaia politizatu bezain pronto, UZTAK funtzionatzeari utzi zion.

J.A.: Bestalde, nekatu egin ginen. Soldadutzaren amaiera heldu zen eta gaintzeko kezkontzako irtenbiderik ez genuen ikusten.

Nola ikusten duzu mugimendua, horrenbeste urte eta gero?

J.A.: Botereari mesede egin geniola uste dut. Izan ere, garai hartan soldadutza mantentzearen edo armada profesionala sortzearen arteko zalantza zuten. Intsumisioa ondo etorri zitzairen ezertarako balio ez zien armada berritzeko. Baina gure helburu bakarra ez zen soldadutzara ez joatea: gizartearen desmilitarizazioa ere nahi genuen eta mugimendua oraindik ere bizirik da.

I.L.: Nire ustez hiru fase izan ziren: lehenengoan jendeak soldadutzari uko egiteari ekin zion eta kartzelara joateko arriskua zegoen. Gero mugimendua indarra hartu zuen eta denok bat egin

genuen. Hirugarren fasean alderdiek ere bat egin zuten eta derrigorrezko soldadutza kendu zen. Hortik aurrera, mugimendu antimilitaristak beherakada ezagutu zuen. Antimilitaristak asko gara, baina ez dugu mugimendu horretan lan egiten.

J.A.: Ni zalantzatan izan nintzen: intsumisio egin ala zoramena alegatu. Izan ere, oso ohikoa zen eromena argudiatuz soldadutza saihestea. KEM/MOC taldearen bilera batzuetara joan nintzen eta jarrera antimilitarista hartzea erabaki nuen.

Bestalde, egungo gaztedia nola ikusten duzue?

I.L.: Orain beste kezka batzuk daude. Gaztetxean, adibidez, ekimen asko daude abian. Soldadutza askoren arazo zen eta horren kontrako mugimendua sortzea normala izan zen. Orain beste arazo batzuk daude eta jendea mugitzen dela uste dut. Gustuak aldatu dira, baina gazteen berezko ezinegona ez da desagertu.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



IRAKURRIENAK

1. Ezkio Itsasokoak, harro egoteko moduan.
2. Zumarragan PSE-EE eta Urretxun EAJ.
3. Bonba-abisua izan zen bart Zumarragan.
4. Ezker abertzaleak urrezko bozka eskatu du.
5. Harrera beroa James Jonen laburmetraiak. Bertsotan, gabiria-rrak nagusi.
6. Urola Garaiko Gidak hamar urte bete ditu.
7. Arnasten dugun aireaz.
8. Sute txiki bat izan da goizaldean.
9. Urretxuko Euskal jaia *Youtube*-n ikus daiteke.
10. Antion makro-proiektu bat egitearen aurka azaldu da Antiguarekin.

OTAMOTZ TELEBISTAN AZKENAK

- XXX. Zuhaitz Eguna Zumarragan.
- MB 2009: Aldiriko kanporaketa.
- Dizebiren artea Zelai Ariztin ikusgai.
- Irrintziko nesken entseguak.
- Sutea Aldiri kiroldegian.
- MB 2009: Motzeko kanporaketa.
- MB 2009: *Hitzetik Hartzera*.
- Endika Esteibar eta Joseba Alberdik Mugitu.com sortu dute.
- Goierri saskibalo taldea: seniorrak.
- Goierri saskibalo taldea: kadeteak.

- Literatura tailerra: Harkaitz Cano.
- Zumarraga eta Urretxuko I. Aukera Azoka.
- MB 2009: Igartubeitiko saioa.
- Martxoko feria berezia.
- Goierri-Zarautz kadeteen saskibalo partida.
- James Jon Ez Doktorearen aurka* laburmetraiaren aurkezpena.
- James Jon Ez doktorearen aurka* laburmetraia
- Urretxuko Euskal Jaietako bideoak.
- Urola Garaiko Gidak hamar urte bete ditu.
- Ezker abertzaleak urrezko bozka eskatu du.
- Inauterietako bideoak (Umeak, helduak, jubilatuek eta Urretxuko Musika Banda).

INKESTAK

Herrian kotxea aparkatzeagatik ordaindu beharra dagoela iruditzen al zaizu? ?

Ez: %77

Bai: %21

Ez dakit: %1


Martxoaren 8a ospatu beharreko eguna dela uste al duzu?

Ez: %53

Bai: %41

Berdin dit: %6





Otamotz

Herri Aldizkaria

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX-BIBOLAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbetea

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntzia e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA

Jaurretu

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belarzacm

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO


Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Zer falta zaio Antiori?



Martxoaren 10ean, Otamotzeko alma materrak Antioko interpretazio zentroari buruzko albisteak idatzi zuen Noticias de Gipuzkoa egunkarian. Orotara 60 proposamen aurkeztu dituzte Euskal Herriko eta atzerriko profesionalak. Epaimahaikideei dagokie proiekturik txukunena aukeratzea. Epaimahaia osatzen dute: Mikel Serrano alkatea (PSE-EE), Eduardo Navarro Ingurumen batzordeko presidentea (PSE-EE), Udaletxetik bidali ez duten alderdi bakoitzeko zinegotzi banak (PSE-EE, EA, EAJ, EB eta PP), Antiguarekin taldeko Arantxa Gabiriak eta lau arkitekto (Udala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala ordezkaturiko dute). Erabakia hamabi lagunengana esku dago.

Parte-hartze sistema honen defendatzaileak etsuak gara. Badakigu epaimahaikideek, bakoitzaren interes politiko-ekonomikoei begiratu baino,

herritarren desioei men egingo dietela. Dena den, guk, herriaren bozeramale umilok, kaleak zer eskatzen duen gogoraziko diegu beste behin. Badaezpada ere.

Zer falta zaio Antiori? Hala da, zuk ere berdin pentsatzen duzu. Antiok taberna elegante eta sendoa behar du, urretxuar fanatikoek gasolinaz erretzerik izango ez dutena. Museoak eta horrelako gauza arrarorik ez. Epaimahaikide jaunok, Antion ezingo duzue Antio bera baino museo ederragorik egin. Bertan jaio garenak eta honantz datozenak (alkatea bezala) baselizaz eta inguruaz gozatzea nahi baduzue, baselizaren atea zabalik mantendu urte osoan, eta inguruan jendea erakarriko duen zerbait eraiki, ez maketa pare bat eta panel informatibo batzuk erakutsiko dituen txiringittoa. Zumarraga.net-ek berdin-berdin beteko luke funtzio hori. Antio biziberritzea da kontua, ez kristalezko kutxa batean sartzea.

Intsumisoen mugimendua gogoratzen al duzu?

Zer iritzi duzu armadez?



Irati Perez eta Begoña Santillana



Zer edo zer entzun dugu intsumisoen mugimenduaz. Oso gutxi. Izan ere, 17 urte besterik ez ditugu. Hala ere, ondo iruditzen zait soldadutzaren aurka borrokatzea. Egia esan, armadek gerrak pizteko besterik ez dute balio.

Aritz Dionisio



Soldadutzara joateko muga izan nintzen. Luzapenak eskatu behar izan nituen. Intsumiso izan nahi nuela gogoratzen dut, baina horretarako aukera izan aurretik soldadutza kendu zuten. Erabat ados nengoen intsumisoen mugimendurekin. Armadak? Laguntza humanitaria bakarrik jorratu beharko lukete.

Francisco Javier Janeiro



1988an tokatu zitzaidan soldadutza egitea. Pentsa zenbat denbora pasatu den! Intsumisioa primeran gogoratzen dut. Ni soldadutzara joan nintzen garaian azaldu ziren lehen intsumisoak. Oso ausartak izan ziren, lehenengoak kartzelatu egin baitzituzten. Soldadutza eta armada, nahi dituenarentzat.

Mariluz Parra



Oso gutxi gogoratzen dut. Izan ere, familian eta lagunartean ez nuen garai hartan soldadutza egin behar zuen inor. Dena den, soldadutzaren eta armaden aurka nago. Gerrak pizteko bakarrik balio dutela uste dut.

Gaia: Hemen da Korrika

Doinua: Ilun ikarak

Itziar Etxezarreta



Hamaseigarrenez aurten ere
badatorrela Korrika,
albiste honek euskaltzaleoi
sortu ohi digu irrika.
Har dezagun lekukoa eta
furgonetari segika,
ia euskaraz janzten ditugun
hainbat auzo ta karrika.

Tuteran hasi indartsu eta
bukatu berriz Gasteizen,
hamar egunez gau eta egun
hainbat herri zeharkatzen.
Hala ta guztiz ahalegintxo bat
egiten saia gaitezen,
egun hauetan bizitakoa
urte guztira zabaltzen.

Ezinbestean jarri beharko
gaur leloari begira,
kanpotar asko Euskal Herrian
euskara ikasten ari da.
Zuen jarrera ta ahalegina
askoren eredu dira,
ongi etorri euskaraz bizi
nahi genukeenon herrira!

iritziz iritzi

Josune Zarandona



Mezu positiboa krisi garaian

Krisi garaian gaude. Jada, baikorrenak ere ezin du errealitate hau ukatu. Ohikoak dira orain enpresetan kanporatzeak, langileen protestak, EREak... Lanik gabe gelditu direnek INEM-eko zerrendak gizentzen dituzte. Eta lanean daudenak, euren ordua noiz iritsiko zain daude. Kontrolpean izan dugunak eskuetatik ihes egin digu eta zalantzazko etorkizuna marraztu digu. Eta okerrenea etortzeaz dagoela diote. Egoera ekonomiko kaskarretik haratago, krisiak ere badi-tu beste eragin batzuk. Krisia giza alderditik begi-ratuz gero, datuak eta estatisten beharrean, lanik gabe gelditu diren pertsonak, bizitza ahal bezala aurrera ateratzeko edozer gauza egiteko prest dauden familiak edo eta hondoratuta gelditu diren

bihotzak atzemango ditugu. Krisia morala ere badelako. Baina, egoera larri guztiek zerbait ona ekarri dezaketela pentsatzen dudan horietakoa naiz. Krisiak progresua dakarrela pentsatu nahi dut. Nonbaiten irakurri nuena gogora ekarriz, aldaketak ez direla beti gauza bera egitearen ondorio esan daiteke. Aldaketak hondoa jotzen denean sortzen direla. Krisi garaian sortzen dira asmakuntza, aurkikuntza eta estrategia handiak. Krisi garaian konponbideei ez ezik arazoei ere errespetua izaten ikasten da. Krisirik gabe ez dago desafiorik eta desafiorik gabe bizitza erruti-na bihurtzen da. Benetako krisia, gaitasunik eza-ren krisia da. Benetako krisia, berau gainditzeko borrokarik ez egitea da.



Fernando Aramburu

Los peces de la amargura

Hamar narrazio labur hauetan idazleak terrorismoak eragindako ondorio latzak azaltzen ditu. Biktimak gizaki hutsak dira, hezur-haragizko eta sentimenduzko pertsonak, egundoko tortura pairatu behar dutenak: hilketaren zauri mortala, alargunen eta umezurtzen etsipena eta bakardadea, harremanen haustura, jendearen indiferentzia krudela, kikilduon koldarkeria, gorroto zaharkituaren pozoia... Desolazioa nagusi-

tzen den neurrian, agerian gelditzen da biktimen errugabetasuna, baita kartzelan usteltzen den presoarena edo amarena ere. Liburuan zehar mamu bat bezala altxatzen da bortxakeriak zabaltzen duen tragedia: deshumanizazioa eta doilorkeria, porrota eta zentzugabekeria, hondamen pertsonalak eta galbide kolektiboa. Liburu ausarta, gure alderdirik ilunena argitzen duena.

Pello Biain

Delorean

Geldoena martxan jartzeko moduko erritmoak sortzen dituzte. Badauka zerbait ezberdina Zarauzko taldeak, eta euren abestiren bat entzunez gero, ez harritu Berlingo edo Londresko zulorik *cool*-enean zaudela sentitzen baduzu. Halako sentipen basati, bero eta modernoa sorrarazten baitute. Eta ez da ingelesez kantatzen dutelako. Dotoretasun kutsua badute, gainera, jarrera *post-punk* samarra-edo izanagatik.

Laster, udaberrian, diska berria aterako dute Mushroom Pillow disketxearearekin, baina lehenago *Ayrton Senna* izeneko EP bat plazaratuko dute. 10 bat urte daramatzate elkarrekin, eta perla gogoangarriak utzi dituzte bidean: *Delorean* (2004) diska, hurrengo urteko *Metropolitan death* -horrekin eman zuten beharrezko jauzia-, eta *Into the plateau* maisulana.

Igor Susaeta



Buscando un beso a medianoche

Alex Holdridge

Wilson Los Angeles hirian ezartzen da ahazteko moduko urtea bizi ondoren. Betiko neskalaguna zenak utzi berri du, kotxea izorrratu zaio, lantzen ari zen hainbat gidoi zituen ordenagailua lapurtu egin diote eta pikutara hamaika lan ordu. Ez planik, ez betetzeko moduko proiekturik, bizigarriren baten premia du aurrera egin ahal izateko. Urtezahar gaua gainean da gainera eta Wilsonek ez du gau horretan egin ohi den

zitarako lagunik. Bere lagun Jacobek harreman web orri batean iragarkia ipintzeko konbentzitzen du. Wilsonek zer idatzi eta "Misantropoak misantropoa ezagutu gura luke" iragarki xelebrea ipintzen du. Vivianek erantzuten dio, hiri handira antzezle karrera egiteko asmoz iritsi zen Texasko neska batek hain zuzen ere. Drama romantiko hau benetan gozagarria eta freskoa da.

ButaK 21 zineklub taldea



▼
Martxoko ferian ateratako argazkiak.



Araceli Garcia: Berdintasunaren alde lan egin zuen maistra

Araceli Garcia zumarragarrak Xera saria jaso du hilabete honetan. Emakume hau Zelai Arizti ikastetxeko irakaslea izan zen eta neskak goi mailako ikasketak egitera bultzatu zituen. Gainera, hezkuntza sistemak emakumezkoak eta gizonezkoak berdintasunez tratatzearen alde borrokatu zen.

Araceli Garcia, Lamourous-Argixao geriatrikoko harrera gelan.



Non jaio zinen?

Iruren jaio nintzen, 1929an. Nire ama madrildarra zen, baina salamankar jatorrikoa. Aita Tolosakoa zen, baina Donostian bizi izan zen eta gero Irunera joan zen: bertako bagoi fabrikari lan egitera. 1931n, Errepublikari aldarrikatu zen urtean, bagoi fabrika itxi zen eta aitak sei hilabete eman zituen langabezian. Garai hartan ez zegoen langabetuentzat dirulaguntzarik. Ama jostuna zen eta bera izan zen familia aurrera atera zuena.

Noiz etorri zineten Zumarragara?

Nire aita langabezian egon zen garaian Aparicio anaien lantegia ireki zen, gero Irimo izan zena. Aitak horren berri izan zuen eta Zumarragara etorri zen. Tornulari-mekanikoa zen eta lantegian sartzen lehenetakoa izan zen. Gurasoak aldi baterako etorri ziren, Irunera itzuli ahal izango zirela pentsatzen zuten. Ama

nerabazarotik bertan bizi zela eta bere burua irundartzat zuela kontuan izan behar da. Baina Zumarragan oso ondo integratu ziren eta ez zuten itzuli nahi izan. Aita Apariciori fidela izaten saiatu zen, lana eman baitzion, eta ama hemen gus-tura zegoen. Hil zenean jende asko etorri zen doluminak ematera eta orduan kontu-ratu nintzen zenbat maite zuten. Horrek asko hunkitu ninduen.

Zer gehiago esan dezakezu gurasoez?

Beraienganako oso sentimendu berezia dut. Izan ere, sei hilabete nituenetik elbar-ria naiz. Polioa izan nuen eta garai hartan elbarriei ere berezian hezten eta tratatzen zitzairen. Gurasoek, ordea, sekula ez zida-ten besteen ezberdina sentiarazi. Niri buruzko zer edo zer esaten zieten bakoit-zean, besteak bezalakoa nintzela eta gai-nontzekoen moduan bizi eta lan egin behar nuela esaten zuten. Sekula ez zida-ten trabarik jarri. Horri gero eman diot balioa: beste batzuek, inork barre egin ez ziezaien, ez zietela etxetik irteten uzten esan didatenean. Gurasoek kategoria handia erakutsi zuten.

Zure ibilbidea ikusita, gurasoak ezker-tiarrak zirela dirudi.

Hala da. Aita ez zen inongo alderditakoa, baina liberala zela esaten zuen. Amak berak bezala pentsatzen zuen. Desilusio apur batez hitz egiten zuten politikaz.

Zergatik erabaki zenuen irakasle-ikas-ketak egitea?

Ikastea oso gustuko nuen. Eskolan esko-la beraz maitemindu nintzen. Zumarragako ikastetxe publikoan aparte-ko irakasleak genituen, baina ahaztu egin ditugula iruditzen zait. Hiru ziren: Doña Concha, Señorita Pepita eta Señorita Busto. 14 urterekin eskola uzteko ordua

heldu zitzaidan. Ama irakasleengana joan zen, egindako lana eskertzeko, eta nirekin zer egin behar zuen galdetu zioten. Amak sastrea izateko aukera eskaini behar zida-la esan zien. Hanka sartzea zela erantzun zioten, joste kontua ez zela niretzat apro-posa. Niri ikastea zegokidala. Amak karre-rra eskaintzeko dirurik ez zutela aipatu zien eta irakasleek aukera bat eskainiko zida-tela esan zioten. Etxean ez zuten ni bere-hala lanean hastea behar eta urtebete gehiago eman nuen eskolan kultura gehiago hartzeko. Ondo etorri zitzaidan.

Zer egin zenuen ondoren?

Herriaren alde lan asko egin zuen

“Amak karrera

ordaintzerik ez zutela

aipatu zien eta irakasleek

aukera bat eskainiko

zidatela esan zioten”

Anastasio Arrinda apaizak beka batzuk sortu zituen bizilagunei hezkuntza eskaintzeko eta irakasle-ikasketak egin nahi nituen galdetu zidan. Baietz erantzun nion. Azkenean ez zen katekesia izan lagundu zidana. Medrano ahizpek parro-kiaren ekimenaren berri izan zutenean, bat egitea erabaki zuten eta eurekin egin nuen Batxilergoa. Maritxu Ugalde eta Maritxu Aparicio ere irakasle izan nituen.

Non egin zenuen karrera?

Donostiako irakasle eskolan. Ategorrietan. Abertzale bati kendutako jauregian. Ikasketak hasi nituenean nire gurasoek ez

zekiten ordaintzeko gai izango ziren eta bekak eskatuko genituela esan nien. Bi konpromiso hartu nituen: ikasketak aurre-rra ateratzeko ahalegina egitea eta lanean hasitakoan gurasoei diruz laguntzea. Beharbada horregatik ez nuen asko pen-tsatu ezkontza kontuetan... Gurasoei eta ahizpei niri emandakoa itzuli nahi nien.

Non hasi zinen lanean?

Oposizioak Burgosen egin nituen, Bizkaian eta Gipuzkoan ezin baitzen. Araban bai, ordea. Garai hartan Francok eta bere gobernua Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia separatistatzat zituzten eta halako neurriekin zigortzen zituzten. Burgosen Araban baino toki gehiago zegoen eta hara joan nintzen. Oposaketa gainditu ondoren, Burgosko herri batean lan egin nuen. Lermatik bederatzi kilome-trora dago eta bi ikasturte eman nituen bertan, neskekin bakarrik lanean. Oso gustura izan nintzen eta jende hari esker ona zor diot, baina itzuli egin nahi nuen. Eskaera egin nuen eta Ataunera joatea tokatu zitzaidan. Aia auzora. Eskola mis-toa zen eta oso zoriontsua izan nintzen. Denak oso ondo portatu ziren nirekin.

Han jabetu al zinen berdintasunean heztearen garrantziaz?

Han eskola mistoaz maitemindu nintzela esan ohi dut. Neskak eta mutilak elkarre-kin daudela, euren arteko harremana, bakoitzaren ezaugarriak... argi eta garbi ikusten dira. Berehala konturatu nintzen emakumezkoak gizonezkoak baino sorgi-nagoak garela eta azken hauek astokiloa-goak eta inozenteagoak direla.

Zenbait haurrei ematen zenien eskola?

Legeak 6 eta 14 urte bitartekoei eman behar niela zioen, baina txikiagoei ere diru kopuru txiki baten truke eskola ematea

Asto gainean, eskolak eman zituen Burgosko herrian.



Araceli Garcia (eskuinekoa) Ataunen eskolak ematen zituzten beste bi irakasleekin.

adostu genuen. Eskolan ordubete gehiago gelditzeagatik ere diru pixka bat ordaintzen zen. 3 eta 4 urteko hurrek ere eskolara etorri nahi zuten eta atean jartzzen ziren, karpeta txikiak besapean zituztela. Zer egingo nuen, bada? 50 ikasle baino gehiago nituen. Bederatzi urte eman nituen Ataunen.

Euskaraz primeran hitz egingo duzu.

Eskolak gazteleraz ematen nituen, noski. Hala agintzen zuten. Ikasle ia guztiek gazteleraz hitz egiten zekiten. Emakume batek bederatzi urtetan ez nuela euskara ikasi leporatu zidan eta nik heldu nintzenean gazteleraz hitz egiteko eskatu zidala oroitarazi nion. Medikuairengana eta Ordiziako azokara joateko nahi zuten gazteleraz ikasi. Egia esan, Ataunen dezente ikasi nuen eta Zumarragara etorri nintzenean gau eskolan izena eman nuen. Marian Ostiza nire irakaslea izan zen. Lazkaon,

Eskoriatzan, Arantzazun eta Martutenen ere izan nintzen euskara ikasten.

Ondo hitz egingo duzu, beraz.

Ez dut ondo hitz egiten, nahiz eta garai batean nahiko ondo defendatzen nintzen. Baita idazten ere. Ataunera joaten nintzenean eurek baino hobeto hitz egiten nuela esaten zidaten, baina gero erraztasuna galdu nuen. Gutxi batzuei ez ziguten titulua eman eta oso gaizki hartu genuen. Azterketa batean nire lankideek niri, zaharregia nintzelako, ezin zidatela titulurik eman entzun zuten. Horrenbeste ahalegindu ondoren, ezin zidatela halako kolperik eman esan nien.

Gurasoez hitz egin duzu. Ahizpak ere bereziak izango ziren zuretzat, eurekin bizi izan baitzinen hil ziren arte.

Ni erdikoa nintzen. Esther eta Ameli 2001ean hil ziren. Zaharrena Telefonican lan egiteko prestatu zen, baina saskigintzan eta Irimo enpresan lan egin zuen.

Gazteena sastre zen. Azken urteak Zumi gure txakurrarekin pasatu genituen.

Ez zineten ezkondu. Zer dela eta?

Ez dakit, saiakerak izan baitziren... Ez zen interes faltagatik izan. Hiru ahizpok lagun onak izan genituen, baina... Nirea zerura joan zen, ni hemen utzita. Lagun onak ginen eta gure artekoa ondo bukatuko zen, minbiziagatik izan ez balitz. Pena horrekin eman dut bizitza osoa. Ez dut gizonezko gehiagorekin harremanik izan.

Independente samarrak zineten...

Hala da. Menderakaitz samarrak ginen. Ez dut uste gurasoen eraginagatik zenik, baina, egia esan, nire lagunen amak alabak ezkontzen saiatzen ziren eta nireak ez zuen halako saiakerarik egin. Lagun baten aitak nik ez nuela gizonezko arruntik nahi, baina zaldunak ez zirela niregana etortzen esan zidan. Erantzunzalea izan naiz beti eta bere alaben kontuetan sartzeko eta ni bakean uzteko esan nion.

Emakume gogorra zara gero...

Feministatzat al duzu zeure burua?

Ez. Beharbada arraro samarra izango naiz. Matxismoa, gizonezkoen menderatzea, hilketak... mingarriak iruditzen zaizkit. Matxismoaren aurkakoa naiz. Pasadizo bat kontatuko dut nire jarrera ulertarazteko. Faustino Orbegozo geriatrikoan egunkaria eta egutegia irakurtzeko elkartzen ginen egunero. Santuen artean, 20 gizoneko emakumezko bakarra dago. Hori elizaren matxismoa da. Dena den, ez nator bat inor santu izendatzearekin. Batek merezi badu, gainontzeko guztiek ere bai. Sariekin gauza bera gertatzen da, nahiz eta Xera izenekoa eman didatelako pozik nagoen.

Nola sentitzen zara?

Saria jende askorekin banatu nahi dut.

Zelai Arizti ikastetxe zaharrea, 1969-1970 ikasturtean.



Hasteko beste hautagaiarekin: Lucia Quesadarekin. Bera sari gabe gelditu izanak pena handia ematen dit. Nik berari eman nion botoa. Nire lankideekin ere partekatu nahi dut: Zumarragako ikastetxe publikoa utzi zutenekin, Gainzurikoekin eta gainontzeko ikastetxe-etakoekin. Denok lan egin dugu berdintasunaren eta hezkuntzaren alde. Gure arteko lehia egon behar dela dirudi, baina oso harreman ona izan dugu beti. Dena den, saria nire bizitzatik pasatu diren haur guztiekin partitu nahi dut batez ere. Oso zoriontsu egin naute.

Haurrak horren gustuko izanda, seme-alabarik ez izatea penatuko zaizu.

Bai, baina beno... Nik besteen seme-alabak izan ditut. Baten batek oroitzen txarrik badu, barkamena eskatu nahi diot. Saria haurren gurasoentzat eta hezi ninduten irakasleentzat ere bada. Baita nire gurasoentzat eta ahizpentzat ere, noski.

Jende askok eman dizu botoa.

Ikasle ohi askok nire alde bozkatu dutela esan didate eta ilusio handia egiten dit. Are gehiago une honetan, dagoeneko neure burua zaharkitua ikusten baitut. Pozik ez egotea ulergaitza izango litzateke, baina mundu guztiak merezi du saria bere lanagatik. Berdin du gizonezkoa edo emakumezkoa den. Beste sari bat sortu beharko da, guztion mesedetan lan egiten duten gizonezkoentzat. Ni ez nago gizonezkoen aurka, ezta guxtiago ere.

Zer diozu egun emakumeek bizi duzuen egoeraz?

Pentsaera asko aldatu da. Xera saria ez dagokit niri, nik egin dudana gizartearen bilakaeraren ondorioa baita. Beste lankide batzuek ere lan handia egin dute berdintasunaren alde. Egunotan asko pentsatu dut beraietaz. Guztiok ahal duguna egin dugu, gure arteko ezberdintasunen

gainetik. Ni eskola mistoaren aldekoa izan naiz beti.

Zumarragan eskola mistoa defendatu zenuen. Oztoporik aurkitu al zenuen?

Nire ustez, ordurako ikuspegia aldatuta zegoen. Ez dut kontu honetan protagonista izan naizenik. Dena den, batzuetan eztabaidak izaten ziren, iritzi ezberdinak baitzeuden. Zumarragako eskola zaharrean neskak alde batean zeuden eta mutilak bestean. Eraikin berria egin zenean berdin jarraitzea edo mistoa egitea eztabaidatu zen. Nik mistoaren alde egin nuen, baina beste askok ere bai.

Zer uste duzu hobetu behar dela hezkuntza eta berdintasun alorretan?

Galdera zaila da hori... Hilketez gain, neska-mutikoen artean dagoen giroa deigarria iruditzen zait: ez dira familia giroan bizi. Ez dakit drogen eraginez den, edo gurasoek eurekin egoteko astirik ez dutelako... Gurasoekin bizi izan garenok eta eurekin asko hitz egin dugunok oso oroitzen politak ditugu.

Zer zaletasun dituzu?

Irakasleek jostea ez nuela gustuko esan zioten amari, baina sastre lanbidea ikasi nuen Balentxirekin. Eskulanak ere oso gustuko ditut. Baita irakurtzea ere. Harrapatzen dudana guztia irakurtzen dut, baina indarkeria ardatz duten nobelak ez ditut atsegin. Maitasunezkoak, ordea, oso gustuko ditut. Ezkongabea naizen arren, oso erromantikoa naiz.

Zer edo zer gehiago esan nahi al duzu?

Ezagutu dudana jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiot. Asko zor diet. Bestalde, Zumarragako Udalak nire bizitzako unerik zailenetan lagundu dit: Faustino Orbegozo geriatrikora joan nintzen eta oso ondo hartu ninduten.

Josune Goenaga: sudur gorriaz maitemindu den aktorea

Josune Goenaga zumarragarra urte mordoxka eman du Euskal Herritik kanpo aktore ikasketak egiten. Clown generoa du kuttuna eta herrira itzuli da herritarren artean ezagutzera emateko. Urtarrilean Florida tabernan bere ikuskizuna eskaini zuen eta martxoan ikastaroa eman du.

Josune Goenaga, Irrintziren rolean.



Zeintzuk izan ziren zure lehen pausoak interpretazio munduan?

Antzerkia betidanik gustatzen zait eta 15 urterekin Urretxu eta Zumarragako Karmakros antzerki tailerrean hasi nintzen. 17 urterekin, Batxilergoa bukatu bezain pronto, Madrilera joan nintzen interpretazioa ikastera. Aukera ezberdinak aztertu nituen, baina bihotzak agintzen zidana egitea erabaki nuen. Hiru urte eman nituen Arte Dramatiko ikasketak egiten. Antzeppen munduan esperientzia ere ezinbestekoa da: bidaiatzea, jendea ezagutzea, kalera irtetea eta jendea begiratzea... Hori dela eta, Sevillara joan nintzen.

Zer egin zenuen Andaluzian?

Beste ikastaro batzuk egin nituen, baina ez bakarrik antzerkiari dagozkionak. Interpretazio munduan aukera zabala dago: teatro klasikoa, komikoa, dramatikoa, maskarak, clown... Aukera guztiak ezagutu nahi nituen eta zein erregistrotan moldatzen naizen hobeto jakin. Andaluziako gobernuak dirulaguntza eta ikastaro oso onak eskaintzen dituelako joan nintzen Sevillara. Zinea, clown, gorputz espresioa, ahotsaren lanketa... egin nituen. Clown delakoa Gabriel Chamé argentinarren eskutik ezagutu nuen eta sekulako aurkikuntza izan zen. Identifikatua sentitu nintzen eta bide hori jarraitzea erabaki nuen.

Zer egin duzu ordutik aurrera?

Madrilera itzuli nintzen eta bertan eman ditut azken bi urteak. Han ikasitako guztia praktikan jarri dut. Clown talde bat sortu genuen eta astean zenbaitetan gelditzen ginen praktikatzeko. Hala, numero ezberdinak sortu dira. Urte eta erdi daramat jendaurrean antzeppen.

Non antzeztu duzu?

Madrilen areto txikiak daude. Txoko goxoak dira. Beraietan ikusleei begietara begiratzeko eta beraien erantzuna jasotzeko aukera dugu. Batzuei gogorra egiten zaie, baina nire ustez hori da benetako antzerkia.

Zer da clown delakoa?

Bakarrizketak ez bezala, oraindik ez da oso ezaguna hemen. Gure artean pailazoak haurrentzat dira, batez ere. Nik gazteentzat eta helduentzat lan egiten dut. Clowna norberaren gauza lotsagarriak publiko egitean datza. Bakoitzak barregarri geratzeko modua du eta badaki nola

“Clowna bigarren mailako pertsonaia bezala jaio zen, baina gero betegarri hutsa izateari utzi zion”

barre eginarazi diezaikeen gainontzekoei. Norberak barregarri geratzea onartzen duenean, aurrean duenak barre egiten du. Hortik aurrera, eromenera heltzen gara. Clownak arrakasta zoritxarrean aurkitzen duela esaten da.

Keinuak bakarrik erabiltzen dituzu ala hitza ere bai?

Gai horren inguruan eztabaidak daude. Batzuek ez dute ezer esaten, oso poetikoa dira. Nire pertsonaiak, berriz, asko hitz egiten du. Dena den, hitzak geroz eta gutxiago erabiltzen ditut eta gorputza, berriz, geroz eta gehiago. Nire ustez, hala polita-

goa da. Gainera, ikusleak ez daude horretara ohituta eta hezi egin behar dira. Espainiatik kanpora askoz ere gutxiago hitz egiten da. Uda honetan Parisen eman den ikastaro batean parte hartu dut eta beraiengandik oso urrun gaude.

Non du arrakasta gehien genero honek?

Pixkanaka hona heltzen ari da. Hor da Oihulari Klown. Dena den, arrakastarik handiena Frantzian du.

Zer alde dago clown baten eta aktore baten artean?

Clownak beti publikoa behar du. Bat batean ikusleekin topo egiten du. Zirkoan saio baten eta bestearen artean irteten zen jendea entretenitzeko. Bigarren mailako pertsonaia bezala jaio zen, Charlie Rivelen garaian, baina gero protagonismoa hartu zuen eta betegarri hutsa izateari utzi zion. Gainera, zirkotik antzerkira salto egin du.

Charlie Rivel aipatu duzu. Clownen maisua al da?

Hilik egotea pena da. Bere bizitzari buruzko liburua irakurri nuen eta negar egin nuen. Une tristeak bizi dituen pertsonak besteen barreak sortzeko gaitasuna izatea izugarria da. Pailazoen lana hori da: drama erakutsiz barrea eragiten dute. Beste batzuek bizirik dira eta eurekin gozatu eta eurengandik ikasi nahi dut.

Nolakoa da zure ikuskizuna?

Pertsonaia bat sortu dut eta nirekin batera bilakaera izan du. Bost minutuko saioak eskaintzen ditut, zirkoan bezala. Argi printzak dira. Ordubeteko ikuskizuna eskaintzen dut, baina orain Ramon Merlorekin antzeppen dut. *Vaya semana* telebista saioko aktoreetako bat da eta berarekin lan egin nuen Madrilen.

Josune Goenaga, clown ikastaroan parte hartu duten herritarrekin.



Nolakoa da zure pertsonaia?

Ausartzen da, baina ez. Maitasunaren bila dabil une oro. Umezurtza dela eta maiteko duen norbait behar duela esango nuke. Ezkonberriz janzten da.

Bere izena Irrintzi da. Zergatik?

Madriko ikastaro batean geure burua aurkezteko eta besteei zer edo zer eskaintzeko esan ziguten eta niri irrintzi egitea otu zitzaidan.

Zer gehiagotan ari zara?

Goenkalen lan egiten dut: atrezzo lana egiteaz gain, Maiteren rola betetzen dut.

Etorkizunari begira, zer asmo dituzu?

Antzerki testuak idaztea ere atsegin dut

eta iaz neure konpainia sortu nuen. Neure bizitza-egitasmoa da: nire konpainia edukitzea, idaztea, sortzea... Haurrentzako musikala idatzi dut eta orain euskarara itzultzen ari naiz hemen aurkeztu ahal izateko. Karmakrosek Urretxuko jaietarako euskarazko ikuskizun bat behar du eta, seguraski, lan hau antzetzuko dute. Nire ametsa clown ikuskizunak sortzea eta horiekin munduan zehar bidaiatzea da. Dena den, edozertan lan egiteko prest nago: antzerkian, telebistan...

Clowna hemen ez dela oso ezaguna esan duzu. Hori arazoa al da?

Zer edo zer ezagutzen ari den jendea-

ren aurpegia ikustea oso polita da. Gauza berriak eskaintzea atsegin dut, nire jendeari ikasi dudana erakustea.

Hala, clown ikastaroa eskaini duzu.

Oso pozik nago. Hamaika lagunek parte hartu dute. Lanerako kopuru oso egokia da. Ikasleen artean mota ezberdineko clownak ikusi ditut: batzuek fisikoa erabiltzen dute, besteek hitza, badago besoak eta oinak oso ondo mugitzen dituenik, samurtasunez gainezka ageri denik... Duten guztia eman dute. Material dezente aterata da eta behar bada Eitzako jaietan clown ikuskizuna eskainiko dute.

1980

Kinto-bazkaria Alkizan

Horra hor 1924an Urretxu eta Zumarragan jaiotako gizonezkoek Alkizan egindako bazkarian ateratako argazkia. Zutik: Joxe Tapia, Xanti Etxaniz, Jesus Letona, Juan Joxe Badiola, Carlos Arranz, Perico *Beltxa*, Pepe Briñas, Joxe *Goialde*, Timoteo Albisua, Imanol Garate, Josetxo Mariñelarena *Etxarri*, Manolo Viedma, Hilario Alzola, Jose Maria Mendiola, Alberto Berriotxoa, Joxe Elorza, Jesus Gonzalez Bastida, Ignacio Gonzalez Bastida eta Bernardo Irizar.


Makurtuta: Juan Jose Galdos, Jose *Mordo*, Ramon Belza, Jose Maria Etxaniz, *Pacorro* Mendez, Javier Garin, Jose Unanue, *Errekalde*, Mariano Errekalde eta Benjamin Alonso *El cartero*.



Dohain apartak dituen pilotua

Jon Izagirre piloto urretxuarrak Gabiriako proba irabazi zuen otsailean, ralliesprint denboraldiko lehena. Garaipen harrigarria izan zen eta bere maila aldarrikatzeko balio izan zion. Izan ere, bi urte zeramatzan lehiatu gabe eta utzitako auto batekin aritu zen. Kopilotu lanean jabea aritu zen: Ricardo Tricio errioxarra.

Jon Izagirre, Gabiriako lasterketan gidatu zuen Mitsubishi EVO autoan eserita.



Zer dela eta parte hartu zenuen utzitako auto batekin?

2002an Citroën Saxo bat erosi nion Ricardo Triciori eta ordutik lagunak gara. Bere autoa probatu behar nuela esaten zidan beti eta halako batean animatu egin nintzen. Bere autoarekin lehiatzen utzi izanak, nigan konfiantza duela esan nahi du. Egia esan, beti izan naiz bere gustukoa pilotu gisa. Nire aldetik, autoa nirea ez zenez, ez nuen topera arriskatzeko asmorik. Baina behin kaskoa jarrita...

Lasterketa baldintza horietan irabazteak ilusio berezia egingo zizun...

Lagunek aurrean ibiliko nintzela esaten zidaten, baina Apalantza eta Zapiraini irabaztea... Neure alde apustu egin zuten makinetan eta baten batek 300 euro irabazi ditu.

Zein auto duzu orain?

Ez dut autorik. Nuena duela urte pare bat saldu egin nuen eta lehiatzeari utzi nion. Ezkondu, etxea erosi eta erretiratu egin nintzen. Osatu nuen azken txapelketa

2005eko Citroën C2 Kopa izan zen. 2006an hiru lasterketetan bakarrik parte hartu nuen eta 2007an bakarrean.

Zer egin behar da horrenbeste denbora lehiatu gabe eman ondoren Gabiriako proba irabazteko?

Ni ere harrিতa nago. Oraindik sasoiari nagoela dirudi... Egia esan, car-cross bat dut eta igandetan lurrezko zirkuituetan ibiltzen naiz. Gertuenak Mirandan eta Zaragozan daude. Lehiatzearen ezberdina da, baina eskuen arintasuna mantentzeko balio du. Car-cross autoek indar handia dute, 125 zaldi eta 300 kilo besterik ez, eta oso onak dira praktikatzeko.

“Gasolina litroak sei

euro balio du, gurpilek

1.800 euro balio dute...

Diru gehiegi da langile

batentzat”

Gogorra izan al zen lehiatzeari uztea?

Zaletasun garestia da. Behar genuen dirua lortzen genuen, baina beti itota ibiltzen ginen. Etxebizitza erosi eta autoaz ahaztea erabaki nuen, baina sei hilabete bakarrik agoantatu nuen aitaren tailerrean car-crossa prestatzen hasi aurretik.

Gabiriako proba irabazi ondoren, ez al zaizu berriro lehiatzeko gogorik piztu?

Beti bezain gogotsu nago, baina diru asko behar da. Ricardo Tricok bere autoa hartzeko esaten dit eta denboraldia nirekin osatzeko prest dago, baina autoa mantentzea oso garestia da: gasolina litroak

sei euro balio du eta proba bakoitzean 70 bat litro behar dira, gurpilek 1.800 euro balio dute... Diru gehiegi da langile batentzat.

Lehenengoz aritu al zara halako auto batekin?

Auto honekin berarekin 2003ko Jaizkibelgo igoeran parte hartu nuen. Orduan Luciano Arrabal zen jabea. Nigan konfiantza pizten dien zer edo zer ikusten dute... Auto txikia duen mutil gazte bati noraino hel daitekeen erakusteko aukera eskaini nahi diotela izango da. Jaizkibelen oso ondo moldatu ginen: txanda bat irabazi genuen eta sailkapen orokorrean hirugarrenak izan ginen, bi barketen atzetik. Autoen kategorian lehenengoak izan ginen.

Lastima aukera hobek ez izana.

Beti izango dut zalantza hori: ez dut honetarako benetan balio dudan erakusteko aukerarik izan. Txirringarritza atsegin duenak bizikleta besterik ez du behar, baina guk... 2003an Vasco-Navarro delakoa irabazi genuen Citroën Saxo batekin eta Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera eman ziguten. Lizentziak eta izen-emateak ordaindu zizkiguten, lasterketa batzuetan parte hartu genuen eta postu onak lortu genituen. Sailkapen orokorrean seigarrenak izan ginen, diru faltak itota geunden. Gurpil zaharrekin aritzen ginen eta gainontzekoek sekulako baliabideak zituzten.

Aukeran, zein lehiaketa atsegin duzu?

Rallyak. Zirkuituak ez dira horren zirraragarriak. Rallyak errepide estu eta zikinetan egiten dira. Sentsazioak apartak dira.

Zeintzuk dira zure gustuko pilotuak?

Mundu mailan Loeb gaindiezina da. Hemen gazte on asko daude. Beraiekin

gelditzen naiz, aurrean dabiltzanek auto handiak eta diru asko baitituzte. Aitor Barrueta, Alustiza anaiak, Iñaki Alberdi, Txus Jaio... oso onak dira. Auto txikiak dituzten arren, aurrean dabilta.

Nola oroitzen dituzu lehen pausoak?


14 urte nituen motore bat lehenengoz desmuntatu nuenean. Orduetik auto artean nabil. Aitak mundu hau atsegin genuela ikusi zuen eta anaia eta biok lasterketetara eramaten gintuen, nahiz eta bera ez den oso lasterketa zalea. Anaiak eta biok gurasoei lehiatu nahi genuela esan genienean, diru asko behar dela eta oso arriskutsua dela esan ziguten. Dena den, gure grina ikusita, ezin izan ziguten debekatu. Gure lehen autoa Citroën AX bat izan zen. Neska batena zen. Lasterketetarako prestatu zitekeela ikusi genuen eta 2.000 euroren truke erosi nion. Garajea sartu, desmuntatu eta iraulketen aurkako barrak, motelgailuak... jarri genizkion. Anaiak 17 urte besterik ez zituen eta gurasoen baimena behar izan zuen lehiatu ahal izateko.

Zer auto izan dituzu?

Bi Citroën Saxo, Citroën C2 bat eta Renault Clio Sport bat. Anaia lehiaketetan dabil oraindik. Ford Sierra bat du. Lasterketa onak egin ditu, baina Gabirian ez zen oso txukun ibili.

Aitak Ford markako autoak saltzen ditu, baina sekula ez zara marka horretako autoekin lehiatu.

Hala da. Aitak Ford autoa erosteko esaten zidan beti. Citroën autoan Ford San Martin zioen pegatina eramaten nuen. Garai hartan beste marka batzuk ziren promozio txapelketak antolatu eta dirulaguntzak ematen zituztenak.



Alex Areizaga

Informatika

'Windows Seven'

Osabak oporrak hartu dituela dirudien honetan, inguruko lagun ugari informatikaz hitz egitera etortzen zaizkit. Informatika lengoia gizartean erraitzen ari da eta lagunak ere bere egiten ari dira jerga hori. Aurrekoan batek honako perla bota zidan: "*Windows Media*-ren aroan bizi gara". Nik ez nion ulertu eta uste dut berak ere ez zuela argi zer esan nahi zuen, baina hilabete honetako gaiak hitz egiteko aitzakia eman zidan. *Windows*. *Vista* suertatu den katastrofearen ondoren, *Windows* "konspirazioa" *Windows Seven* izeneko proiektu berri bat garatzen ari dira. Beta bertsioa sarean dago probatzeko jada, baina ez dugu gomendatzen, arazo ugari ematen baititu (beta bertsioen moduan). Hala ere, benetako gomendioa nahi duenarentzat hori doa: utzi *Windows* alde batera eta pasatu *Mac*-era edota *Linux*-era. Bizitza erraztuko zaizu. Gutxienez ez diozu ordenagailuari hainbeste oihukatuko. Hori ziur.



Oihane Sudupe

Osasuna

Gemoterapia

Egun, sendatze prozesuan lagungarri diren teknika anitz ditugu eskuragarri. Oraingo honetan gemoterapia izeneko teknika harrigarriari buruz idaztea erabaki dut. Osatze teknika gisa definitzen da. Zenbait kristal eta harri bitxien (topazioa eta amethysta, besteak beste) bibrazio energetikoa erabiltzean datza. Helburu nagusia defentsa sistema indartzea da. Honetarako energia fluxu zuzena berrezartzen da. Profesionalek bi teknikekin egiten dute lan. Zenbaitek harri bitxia esku batean hartu eta beste eskua osatu behar den gorputz atalean ezartzen dute. Beste batzuek, aldiz, harria minutuko gunean edo gorputzeko zazpi chakren gainean ezartzen dute. Chakra gune bakoitzak edo bizkar hezurreko zirkulazio gune zehatzak kolore bat du bereganatua. Hortaz, terapia honetan argi mota zehatz bat modulatzeko duen harria aukeratzen da gaitza osatzeko. Honela, desoreka zuzendu eta armonizatu egiten da. Liburu interesgarriak: *Cristaloterapia, cómo curarse con los cristales* (Tabish Griziotti, Vecchi argitaletxea) eta *El gran libro de los cristales* (Giuditta Dembech, Obelisco argitaletxea).

Lasterketak

Emakume bat errepide luzean lasterka doa. Trafikoaren kontra, bazter-bazterretik. Bide ertzean kolore guztietako autoak daude aparkaturik, horiak, berdeak, beltzak, zuriak. Haien albotik pasatzean, garbitu egiten ditu eta lehortu. Izan ere, euria iragarri dute irratian eta harrigarria bada ere euria ari du.

Korrikalaria urduri doa, usu baino urduriago eta berak espero baino arinago. Zangoak baino astunagoa nabaritzen du burua. Lasterka daramatza oinak, zapatila zuriek behartzen diote pausoa. Ez ditu pauso luzeak ematen; luzeak baino indartsuak dira emakumearen saltoak. Badirudi asfaltoan bere aztarna utzi nahi duela: "Julia, Atila femeninoa, hemen-dik pasatu zen".

Argala da, argaletan argala, eta euriaren eta haizearen kontra borrokan, are argalagoa dirudi. Ukalondoak laurogeita hamar graduko angeluan tinko eta ukabilak gogor itxita, besoekin hartzen du inpultsoa. Ezker zangoa aurreratzean eskuin besoa aitzinatzen du, eta alderantziz, ezker besoak abantzatzerako atzean du oraindik eskuin zangoa. Bular txikiak da eta ez zaio apenas mugitzen. Haize boladak elastikopean sartzen zaizkion arte. Orduan puztu egiten zaio soin-enborra, eta hegan doala ematen du.

Gogor ari du euria: putzuetan olatuak sortzen ditu; automobilen azpira zipriztin eginda sartzen da; emakumearen zapatila eta galtzerdietan ez da ur gehiago kabitzen, bide ertzean ez da arimarik ikusten, soilik aterkiak eta aterkiak. Kolore guztietakoak: gorriak, urdinak, beltzak, berdeak, lore-dunak, marradunak, arrosak...

Burua gorputza baino aurrerago darama: gogoak zabaltzen dio bidea. Petrolio koloreko ileak erabat korapilatuta ditu. Pauso eta pauso artean, eskuin eskuaz, aurpegian itsasten zaizkion motots solteak atzera bidaltzen ditu. Ezker masailan behera zuena kendu du aurrena: ahoan sartzen zitzaion. Bi pauso aurrerago, kopeta alde batetik bestera zeharkatzen zion ilea belarri atzera eraman du. Aurpegia garbitzeko aprobetxatu du keinua: euri tantak bekainetan, betileetan, sudurrean eta ezpainetan behera isurbide gehie-



gitxo irekitzen ari ziren. Irribarrez doala dirudi, baina irribarrea neke eta sufrimendu extremoak eragindakoa da: hortzak estututa, sudurra zimurtuta, begiak ia negarrez.

Joanean-joanean, emakumea bidegurutze bat zeharkatzen da. Ezker zangoko zapatilan jarri du bere soin meharreko pisu dena. Besoak sorbaldetatik zintzilika laga ditu. Ezkerrera begiratu du aurrena, eskuinera hurrena: libre. Eskuin zangoa altxatu, malkorra erlaxatu, bi salto txiki eman, eta badoa aurrera. Geldialdia segundo bakarrekoa izan da, baina bere bitzta osoa bezain motela iruditu zaio. Aharrausi bat, begi kliska bat, eta berriro ezker-eskuin, ezker-eskuin eta ostera berdinean; korrika doa.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Jon Azpiazu

Jon Azpiazu zumarragarra Urolako triatloi talde berriaren kirolari finenetakoa da. Gazte honek La Sallen ikasi zuen eta gero mantentze modulua egin zuen UGLEn. Egun Indar enpresan lan egiten du. Umetatik da kirol zalea. Urolan futboleko jokatu zuen, Goierrikoekin saskibaloian, jubenil eta afizionatu mailako txirrindulari lasterketetan parte hartu zuen... Egun duatloi eta triatloi probetan parte hartzen du Urolarekin. "Bakarkako kirolak dira eta talde giroa faltan botatzen nuen. Taldea sortu denetik elkarrekin gabiltza eta eskertzekoa da".

Zer izan nahi zenuen umetan?

Sukaldaria. Sukaldaritza atsegin dut eta, ahal dudanean, etxe-koentzat prestatzen ditut jatorduak.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kirola egitea eta ikustea eta lagunekin egotea.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga eta Urretxu. Bertan gaudenean ez gara konturatzen batean edo bestean gauden.

Gustuko kirola?

Txirrindularitza, betidanik, baina denbora asko eskatzen du.

Gustuko txirrindularia?

Indurain, noski. Bere garaiko bideo asko ditut. Berari buruzko dena grabatzen eta erosten nuen.

Gustuko mendatea?

Beizama. Eitza, berriz, gure amesgaiztoa izan da beti: etxera bueltan igo behar da eta ordurako nekatuta gaude. Eskerrak Atagoiti asfaltatu zuten...

Ileheriak ala beltzaranak?

Biak.

Egindako azken oparia?

Anaiari oparitutako eskubaloian jokatzeko zapatilak.

Eta jasotakoa?

Mendiko zapatilak.

Data bat?

Urtero, garaia heltzen denean, Giroa, Tourra eta Munduko Txapelketa noiz hasten diren begiratzen dut.

Neska eta mutil izen bana?



Maria eta Xabier.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Etxean DV hartzen dute. Bestalde, Interneten *Gara*, *Noticias de Gipuzkoa* eta kirol egunkariak ere irakurtzen ditut.

Gustuko telebista saioa?

Desafio extremo eta kirol saioak. Arguiñanorena ere asko gustatzen zait. Errezetei baino gehiago, berak esaten dituen gauzei erreparatzen diet.

Bereziki gorroto duzuna?

Arratsaldean botatzen dituzten telenobelak.

Liburu bat?

Azkenaldian ez dut asko irakurtzen, baina *Forrest Gump* asko gustatu zitzaidan.

Abesti bat?

AC/DC taldearen edozein.

Pelikula bat?

Una historia verdadera. Pelikula motela da eta akziodunak nahiago ditut, baina hau laupabost aldiz ikusi dut.

Soinu bat?

Armonikarena.

Usain bat?

Atarietan sartzen naizenean, sukaldeetako janari usaina usaintzea atsegin dut.

Janari bat?

Lentejak eta jogurtak.

Ura ala...

Coronita garagardoa.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak